

*Euskal Herriko lesbianen artean —Hegoaldean, Iparraldean ez baita lesbiana erakunderik— antolaketari buruzko eztabaida agerikoa izan da. Mugimendu feministan lerratu edota gay taldeekin aritzea izan da debatea. 1983az geroztik euren kabuz antolatu beharra ikusi zuten eta egun lesbiana taldeetan biltzen dira.*

## Lesbiana taldeak, itzulingurukako historia

Mugimendu feministaren baitan borrokatu edota euren artean antolatu eta ezeren aurretik lesbianismoa aldarrikatzea izan da Euskal Herriko lesbianek —Hegoaldekoek, gizonezko homosexualekin gertatzen den bezalaxe, Iparraldean ez baitago bertako lesbianak biltzen dituen talderik— urte askoan izan duten eztabaida. Lesbiana kolektiboen sorrera ere, horretxek atzeratu zuen nolabait.

1979an, mugimendu feministatik abiatuta saiatuko ziren lehenengo aldiz

lesbianak euren talde propioa antolatzen. Ikusten denez, mugimendu feministako dinamikak ez zituen erabat gogobetetzen: lehenengo beste arazo batzuek zuten feministen artean, eta, euren iritzirako lesbianismoa ez zen behar bezala asumitzen.

Eztabaida prozesu zabala irekiko zuen lehenengo talde hark ESAM izena hartu zuen. Emakume Asanbladatik eta Asanblada Independentetik zetorren jendea osatuta, autokontzientziazio dinamikan hasiko zen,



Lesbianismoa kalera ateratzea izan dute helburu taldeok.

baina kontraesanak ere gertatuko ziren, jendeak, gizarteko giroa ikusita beldurra baitzion kalera ateratzeari. Azkenean, porrot egin zuen ESAMen saioak.

Aldi berean, EHGAMen inguruan zeuden antolatuta lesbiana batzuk, feministak izan arren, euren aukera sexualaren aldarrikapenari garrantzi handiagoa ematen ziotenak. Hauek ere, ez zeuden erabat gustura, emakume eta feminista gisa aurrera egiteko hori ez zela gunerik egokiena ikusten baitzuten.

1983an gertakari garrantzitsua jazo zen. Donostian, lesbianismoari buruzko lehenengo mintegia egin odoren, Zamalbiden gai honen inguruko jardunaldiak antolatu ziren. Mugimendu feministako zein EHGAMeko kide zirenek hartu zuten parte bertan. Antolaketa arazoak, eta betiko eztabaida sortu ziren hor ere: mugimendu feministan antolatzea edota gay taldeetan, zer den hobea.

Gogoeta hartatik abiatuta, Emakume Asanbladetako eta

EHGAMeko emakumeek euren kabuz antolatu beharra ikusi zuten. Honela, 1985aren hasieran Gipuzkoako Lesbiana Feministen Kolektiboa sortu zen. Bizkaian, berriz, luzatu egin zen eztabaida prozesua eta gutxi gora-behera 1987ra arte ez zuten kolektiborik sortu. Herrialde horretan, ñabardura ideologikoak zirela eta Ageriari Lesbianen Taldea sortu zen geroago.

Nafarroa, berriz, aitzindari izan zen lesbianismoaren gaian, artean Gipuzkoako sortu gabe ze-

goela, Lesbianen Kontseilua eratu baitzuten bertan. Azken urteetan baina, nahiko moteldua zegoen kontseilu hori eta 1990ean desegin ondoren, Lumatza Lesbianen Taldea sortu zen iaz Iruñean.

Arabian, oso berria da mugimendua. Bertako lesbianak Emakume Asanbladaren inguruan antolatu izan dira oraintxu arte, baina bazuten eurek bakarrik aritzeko kezka. Joan den martxoan sortu zen, Arabako Lesbianen Asanblada (ALA).

### EGUNKARIAko lan hitzarmenean sexu bereizkeriarik ez

Lan arloan diskriminazio ugari egiten dira sexu bereko lagunez osatutako bikoteekiko, batipat ordaindutako lanuzteei dagokienean. EUSKALDUNON EGUNKARIAko lan hitzarmenean bereizkeria horiek erabat gainditu nahi izan dira. Horrela, lanuzte ordainduei dagokien lehenengo artikuluan honelaxe esaten da: «Ezkontzeagatik bi asteko lanuztea izango da. Ezkontza ofizialik egiten ez dutenek ere esku-bide hori izango dute. Bikoterik osatzen ez duten langile guztiak dute behin, hiru urteko antzintasuna izanez gero, baimen hori eskatzeko bidea. Ezkotza delata eta hamabost egun horiek ezte egunetik hurrengo sei hilabeteen artean har daitezke. Itun honetan, elkarrekin bikote eran bizi diren sexu bateko nahiz ezberdineko lagunek osatutakoa hartuko da bikotetzat».

Beraz, ofizialki ezkontzen direnek, ezkontzarik egiten ez duten bikote heterosexualek, bikote homosexualak eta bikotekiderik ez dutenek hamabost eguneko baimena hartzeko aukera izango dute. Medikuntzaren bikoitxekidea laguntzeko ematen diren baimenetan ere aurreko kasu guztietakoak hartzen dira bikotetzat, hau da, ezkontutakoak, heterosexualek eta sexu berekoak.

Lan hitzarmena oraintxe dago eztabaida prozesuan langileen artean. Hala eta guztiz, aipatzen da langileen ordezkariak zein enpresakoak erabat ados datozela puntu honi dagokionean.

**Zorionak GAY eta LESBIANEI beren egunean**

Esteban Donea enp.  
Tfnoa: 49 40 71  
OIARTZUN

Kazkazuri kalea  
Tfnoa: 49 32 36  
OIARTZUN

## KUKU-FRAKA

••••• arropa-denda •••••

Kale Nagusia, 50      Tf.: 55 14 77      HERNANI

## HEAVEN CLUB

Maiatzak 2 kalea, 6  
BILBO

GAY ETA LESBIANEN ATENTZIO ZENTRUA

- ❖ Psikologi kabinetea.
- ❖ Lege arloko informazioa.
- ❖ Ikerketa eta dokumentazio zentruak.
- ❖ Kontsulta eta maileguak
- Mahainguruak, hitzaldiak, mintegiak, liburu eta pelikulen aurkezpenak prestatu.
- ❖ Tailerrak antolatu.

Buenos Aires kalea, 2-3. ezk.  
4 eta 5 bulegoak - BILBO  
Tfnoa: 423 72 96

# MOËT & Co.

c/. Los Mantelli (c/. Los Herrán, 46)  
Teléfono 28 93 33  
VITORIA-GASTEIZ

**HERNANI**  
Kardaberaz kalea, 27  
Tf.: 55 33 71

## LEZOKO UDALA

GIZARTE ONGIZATE SAILA

“HETEROSEXUALITATEA AUKERA BAT DA”

Ekainaren 28an (asteartea)  
Donostiako Bulebarrean 20.00etan